

BIZKAIKO EUSKEREAA ZUZENTZEN

GUZTIA/DANA

Erderazko "todo" esateko, itz bi daukaz euskerak: "dana" ta "guztia". Latiñak be bi euskazan: "omnis" eta "totus". Nik euskerazko "guztia"ri latiñezko "omnis"en antza aurkitzen dautsat, eta euskerazko "dana"ri latiñezko "totus"en antza.

Zenbatu ezin dan gauzea danean, "dana" erabiliko dogu: "ura dana edan dau" edo "esnea dana artu dau" edo "ogia dana jan dau".

Zenbakiak erabilteko aukerea dagoanean edo "gai konmensurableak" diranean, orduan "guztia" erabili: Ez: "iru ogi egon dira eta danak jan dauz". Bai: "iru ogi egon dira eta guztiak jan dauz". Bai: "Ogei gizon jausi dira itxasora eta guztiak (ez danak) ito dira".

Arau onek ba-dau beronen oiñarria: "Dana" ez da besterik "dan a" baiño. "Ogia dan ajan dot" edo "dana jan dot". Ez: "bost ogi egon dira or eta danak jan dodaz". Esatekotan "Bost ogi egin dira or eta (egon) diranak jan dodaz".

Ikusten da orain "dana" eta "totus" antzekoak dirala? eta "onmes" eta "guztiak" antzekoak dirala?

BALDINTZA ALA ITAUNA?

Gaztelereak dauzan illuntasunak errez-errez sar-tzen jakuz euskerara.

Ona emen bat: "Dime si quieres". "Si" ori izan leiteke galdera: "Esaidazu nai dozun ala ez", edo "esaidazu zeuk nai badozu". Erderaz esaldi bietan erabilten da "si", baiña ez euskeraz. Galdera danean azkeneko -n erabilten da, eta "ba" baldintza danean: "Esaidazu gura dozun ala ez", "esaidazu zeuk gura ba'dozu, eta gura ez ba'dozu ez esan".

Beti ez da argi-argi agertuko itauna ala baldintza dan, baiña geienetan bai. Ez esan ba iñoz be olakorik: "Andoni gaisorik ba'dago jakin gura dot". Emen esan "dagoan". Bai oster: "Gaisorik ez ba'dago, datorrela gaur".

Ez daiguzan galdu euskerearen argitasunak, aberastasunak eta egokitasunak.

LENGUSIN JOSEBE ALA...

Esaera au sarritan entzuten dogu Bizkai Irratian eta ortik errira be sartu da. Berandu ete natorren nago. Baiña ez noa izten esan barik.

Senideen izenak ipiñi aurretik ipinten dabe senide orokorra eta alderantziz dala uste dot errian. Adibide bategaz obeto ulertuko da: "Zorionak emoten dautzuz zure lengusin Anek" Askoz obeto joten dau nire belarrietan "Zorionak emoten dautzuz Ane zure lengusiñak". Eta olako esaldi asko entzuten doguz Bizkai-Irratian.

Baiña onek beste gauza bat, antzekoa, dakarsku burura: "Zelan esan bear dogu lekaide edo fraille bat danean: "Aita Joakin" ala Joakin aita"? Agertu dogun eritxiari jarraituz, emen be, bardin izan bear leuke: "Joakin aita" edo "Santi Aita", ez "Aita Santi".

Eta ain maite dogun Bizkai Irratia aitatu dogun ezkerro, beste esalditxu bat aitatu daigun, edo, obeto esateko, beste aditz bat: Zer da euskeraz "zoriondu"? Nire ustez, "zoriontsu biurtu", baiña ez "zorionak emon". Laburtzearren erabilten dogu "zoriondu" itza orretarako, baiña apur bat kosta arren be, "zorionak emon" esan bear geunke. Onelan: "Josebe alaba ona da eta beronen ama zarra zoriondu egiten dau zartzaroan". Baiña ez "Josebe alaba ona da eta aitzu barik urtero zoriontzen dau ama Bizkai Irratiaren bidez". Obeto "zorionak emoten dautsoz amari..". Beste leku baten azalduko dogu "zorionak" ala "zoriona" esan bear litzaken.